

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2018ko UZTAILAREN 5ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2018ko uztailaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta


Bilkura honetara ez da bertaratzen: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2018ko ekainaren 7an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 7 de junio de 2018.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Sorozelai kaleko 42. Etxebizitzaren fatxadako egurrezko listoiak ustelak egonik, beraiek kendu eta hauen ordezkapena egiteko obra baimena eskaera, B.V. /Solicitud de licencia de obras para la sustitución de la madera situada en la fachada de Sorozelai 42.**
- 4. Datuak babesteko erregelamendura egokitzeko lanen esleipena, hala bada./Adjudicación de los trabajos de adaptación al Reglamento General de Protección de datos.**
- 5. Datuak babesteko erregelamenduak eskatzen duen Ordezkararen izendapena, hala bada/Nombramiento del delegado de Protección de Datos, requerido por el nuevo reglamento.**
- 6. 2017-2018 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzea, hala bada/gokio./ Aprobación de las bases de regulación de las ayudas económicas a los habitantes de Larraul por cursos de euskara, curso escolar 2017/2018.**
- 7. Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidearen konponketa lanen esleipenerako lizitazioaren onespena, hala bada/ Aprobación de la**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

licitación para la adjudicación de los trabajos de ejecución de la obra Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidearen konponketa.

8. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
9. Beste batzuk/Otros.
10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

10.1. Euskaraldia Udal Barruan sustatzeko erakunde-adierazpenaren onespena, hala bada.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2018 urteko ekainaren 7an Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Idazkari-kontuhartzaile andreak batzarkideei jakitera ematen die aurreko Udalbatzatik oraingora ez direla Alkate ebazpenik eman.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA


SOROZELAI KALEKO 42. ETXEBIZITZAREN FATXADAKO EGURREZKO LISTOIAK USTELAK EGONIK, BERAIEK KENDU ETA HAUEN ORDEZKAPENA EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, B.V.

Ikusirik B.V. andreak eginiko eskaera, non Sorozelai 42-ko etxebizitzaren fatxadako egurrezko listoiak ustelak egonik, beraiek kendu eta hauen ordezkapena egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- B.V. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da Sorozelai 42ko, etxebizitzaren fatxadako egurrezko listoiak aldatzeko obra baimena onestea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDURA EGOKITZEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik 2018ko maiatzaren 25ean sartu zela indarrean 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, hau da, “Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra”.

Ikusirik, Larraulgo udalak aipaturiko erregelamendu horretara egokitu egin behar dituela bere jarduerak.

Ikusirik, aipaturiko egokitze lan horiek egiteko aurrekontu bat eskatu dela OSK enpresari, bere kostua 1.300,00euro+ BEZ-a izango delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-OSK enpresari, Datuak babesteko erregelamendura egokitzeko lanen esleipena burutzea, bere kostua 1.300,00euro +BEZ-a izango delarik.

BIGARRENA.- Aipaturiko gastua onestea, 227.920.00.99 partidaren kargura.


HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri OSK enpresari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDUAK ESKATZEN DUEN ORDEZKARIAREN IZENDAPENA, HALA BADA

Ikusirik 2018ko maiatzaren 25ean sartu zela indarrean 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, hau da, “Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra”.

Ikusirik, aipaturiko erregelamendu horretan, Administrazio publikoei dagokienez, lehentasunezko puntuetako bat dela, Datuak Babesteko Ordezkarri bat izendatzea. Beraz,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

zerbitzu hori aurrera eraman eta Ordezkaría izandatzeko OSK enpresari aurrekontu bat eskatu zaio.

OSK enpresaren aurrekontuaren arabera, zerbitzua 2 edo 3 ordu hilean egin daitekeela jasotzen da, kostua 50,00euro ordua +BEZ izango delarik.

Gaia azterturik, Udalbatzak honek, aho batez, honakoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- OSK enpresari Datuak Babesteko Ordezkaría lanak egiteko kontratua esleitzea 6 hilabetez. Hilean 2 edo 3 orduko zerbitzu bat eskainiko duelarik, 50,00euro+BEZ-a orduko koste batekin.

BIGARRENA.- Aipaturiko gastua onestea, 227.920.00.99 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri OSK enpresari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

2017-2018 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Alkate-Lehendakari andreak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andreak 2017-2018 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez


ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2017-2018 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Diru-laguntza eskaera egiteko epean uztailearen 10etik 23ra zabalduko da (biak barne).

HIRUGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LARRAULGO PLAZATIK AIZE ETA ZEKEN BAILARARA DOAN BIDEAREN KONPONKETA LANEN ESLEIPENERAKO LIZITAZIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak, Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidearen konponketa lanak egin behar dituela, egoera kaskarrean aurkitzen delako, horretarako Udal Aholkulari teknikoak dagokion egitasmoa prestatu du.

Ikusirik Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidearen konponketa lanen aurrekontua 39.016,55 eurokoa dela, hau da, kontratu txiki bat.

Kontutan izanik, Larraulgo udalak asmoa duela, hainbat enpresei bere gonbidapena luzatzea, azken hauek aipaturiko lanak egiteko aurrekontuak aurkeztu ditzala. Enpresak ondorengoak izanik: Excavaciones y Transportes Orsa, S.L.; Asfaltos Urretxu, S.A; Landa e Imaz, S.A.; Bixente Otegi Lizaso, S.L.; Sasoi eraikuntzak, S.L.; Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak, S.L. eta Murgil Eraikuntzak, S.L.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapena, Landa inguruneko eta Lurralde Orekako departamentuak, aipaturiko lanak egiteko 33.047,02 eurotako diru-laguntza esleitu diola Larraulgo Udalari.

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:


LEHENA.- Udal Aholkulari teknikoak prestatuturiko “ Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidearen konponketa lanen “ egitasmoa onestea.

BIGARRENA.- Aipaturiko egitasmoa kontratu txiki bat denez, Excavaciones y Transportes Orsa, S.L.; Asfaltos Urretxu, S.A; Landa e Imaz, S.A.; Bixente Otegi Lizaso, S.L.; Sasoi eraikuntzak, S.L.; Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak, S.L. eta Murgil Eraikuntzak, S.L.- enpresei gonbidapena luzatzea, dagokion aurrekontuak aurkezteko. Lanen exekuzioa, Udaletxeak finkatutako epean egiten duenari eta ekonomikoki proposamen hobenenari esleituko zaiolarik.

ZORTZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IZFE	7,50
KIROLZER	36,10
ZU ETA BIOD	136,62




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	95,76
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	836,81
CONTENEDORES SARASOLA	152,34
IZFE	2.052,45
KOLDO JAUREGI	514,25
JOSE ANTONIO ALTUNA	63,03
TOLOMENDI	155,55
BULEGOAK	284,87
EBA ERKIZIA	1.261,49
TOLOSAKO UDALA	30,63
LASURTEGUI	217,80
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	5.251,69
ASTEASUKO UDALA	716,58
BERRI LANTEGIA	91,43
GRAFICAS ORIA	48,40
MAIZ	239,41
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	155,78
CORREOS	12,00
DIONISIO ORMAZABAL	162,62
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	909,48
NORTEGAS	36,48
NORTEGAS	39,69
NORTEGAS	144,35
IBERDROLA	221,45
IBERDROLA	117,60
IBERDROLA	102,51
IBERDROLA	27,45
IBERDROLA	155,97
IBERDROLA	63,44
MOVISTAR	173,47
MOVISTAR	203,56
MOVISTAR	-79,82
MOVISTAR	-1,33
MOVISTAR	17,79
MOVISTAR	46,85
MOVISTAR	0,22
MOVISTAR	1,52

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **14.703,29** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREM PUNTUA **BESTE BATZUK**

9.1. TOLOSALDEA GARATZEI 2018 URTEKO BIGARREN EKARPENA ONESTEIA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2017ko abenduak 19ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2018 urterako Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 4.606,00 euro direlarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Ikusirik, 2018ko apirilaren 12an egindako Udalbatzarrean, Tolosaldea Garatzeni 4.606,00 eurotako ekarpenaren gastua onestu zela, lehen ordainketa egin delarik.

Ikusirik, aipaturiko ekarpenaren bigarren zatia irailaren 30erako egin behar dela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, irailaren 30erako, 2018urteko ekarpenaren bigarren zatiaren ordainketa burutzea onestea, hau da, 2.303,00 eurotako diru kopurua.


BIGARRENA: 2.303,00 eurotako gastua onestea, ordainketa 2018ko udal aurrekontuetako 422.430.00.01 partidaren kargura egingo delarik.

HAMARGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

10.1.EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik udal<>ekin, Euskara teknikarien Elkarlanean, aurrekizuriko erakunde adierazpena non ondorengoa dioen:

EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

Gipuzkoan bi hizkuntza ditugu ofizialak: euskara eta gaztelania. Begi bistakoa da, ordea, bi hizkuntzok ez daudela oreka egoera batean, ez esparru publikoan ez eta gizartean ere: gaztelania da nagusi. Uste dugu orain arteko ahaleginarekin bakarrik ez direla bi hizkuntzak parekatuko, indar gehiago jarri behar dugula hizkuntza-berdintasuna bultzatzeko; euskara lehenetsi behar dugula, alegia. Izan ere, gizarte-, genero- eta hizkuntza-berdintasuna lortzea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udalen erronketako bat, eta, horrenbestez, horretara bideratutako urratsak egitea.

UNESCOrentzat ere munduko hizkuntza-ondarea zaintzea eta hizkuntza gutxituak garatu ahal izatea da mende honek duen erronkarik garrantzitsuenetako bat. Izan ere, 7.000 hizkuntza inguruk osatzen dute munduko hizkuntza-ondarea. Munduko biztanleen % 97k hizkuntzen % 4 hitz egiten du ama-hizkuntza gisa, eta biztanleen % 3k hitz egiten du hizkuntzen gainerako % 96a. Horrela, bada, hizkuntza gutxi batzuk dira nagusi munduan, hizkuntza txiki eta gutxitu askorekin elkarbizitzan.

Gipuzkoan 100 hizkuntzatik gora hitz egiten dira eta ikasi beharko dugu aniztasun hori egoki kudeatzen; baina bizikidetzaren osasuntsu baterako lehen urratsa euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza orekatua lortzea da.


Norabide horretan, euskara biziberritzeko beharrezkoa dugu norbanakoen, gizartearen eta administrazioen arteko ahaleginak uztartu eta elkar elikatzen jarraitzea -Eusko Jaurlaritzaren Eta Hemendik Aurrera Zer txostenak ere halaxe jasotzen du-, eta, era berean, premiazko zat jotzen dugu hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntza-arau sozial berriei ere lekua egitea.

Guztion elkarlanari esker, euskararen normalizazio-prozesuak ibilbide oparoa izan du azken hamarkadetan, emaitza aipagarria da, baina, prozesu guztiek bezala, argiztalak ditu; bada pozik egoteko arrazoirik, baita kezkatzeko daturik ere.

2016. urtean egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, ezagutza-datuek nabarmen egin dute gora azken hamarraldietan, baina erabilera ez da neurri berean hazi; Gipuzkoan bizi den 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 57,4 euskalduna da eta biztanleen % 73,3k euskara ulertzen du. Erabilera-datuek diotenez, aldiz, Gipuzkoan 16 urtetik gorakoek % 39,5ek hitz egiten du euskaraz.

Datuon argitan, euskararen normalizazio-prozesua inflexio-puntuan dago, fase baten amaieran eta beste baten atarian. Aro berri horretan, agerikoa da erabileran jarri beharra dagoela indarra.

Euskararen ulermenari ez diogu behar besteko garrantzirik eman; izan ere, erabileraren korapiloa askatzeko gako nagusi bat ulermena da. Alegia, euskararen ulermenaren balioa azpimarratuz gero, ulermena erabat zabalduz gero, euskararentzat eta gipuzkoarrantzat erabilerarako eremu zabal eta emankorra zabalduko dugu. Kontuan



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

hartzeko beste datu bat: Gipuzkoako udalerrri gehienetan ulermena % 80tik gorakoa da, eta gainerakoetan biztanleen % 60k baino gehiagok ulertzen du euskara.

Euskaraldia, 11 egun euskaraz, azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak, beste hainbat eta hainbat eragilerekin elkarlanean, abian jarri dute Euskaraldia ekimena. Gure udalerrria ere buru-belarri sartu da, eta ekinbidea burutzeko batzordeak lanean dihardu.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak izango gara, eta 11 egunez hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, indarra ulermenean jarrita. Bi subjektu-mota bereizi dira: ahobizi eta belarriprest.

Ahobiziek, 11 egun horietan, euskarari eutsiko diote solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, belarriprestek, aldiz, solaskideak beraiekin euskaraz aritzera gonbidatuko dituzte, nahiz eta belarriprestak berak euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

Ekimenaren helburua hau da, besteak beste: ariketa praktikoa horren bidez ikusaraztea eta biziartzea hizkuntza-ohiturak alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek igaro eta gero, hizkuntza-praktika berri horiei eustea.

Euskaraldia Gipuzkoako Foru Aldundian eta udaletan


EAEko euskararen erabilera normalizatzeko V. Plangintzaldiak honako datu hauek jasotzen ditu amaierako ebaluazio-txostenean:

- o Gipuzkoako ordezkari politikoen % 90,4 gai da euskara ulertzeko eta % 86,8 euskaraz hitz egiteko.*
 - o Gipuzkoako langile publikoen % 86,8k ongi edo oso ongi hitz egiten du euskaraz.*
- Aipatutako datuak eta Gipuzkoako egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, erabileran eragiteko baldintza egokiak ditugu Gipuzkoan. Euskaraldia, ostera, abagune aproposa dugu Gipuzkoako erakunde publikoak eta arduradun politikook dagokigun erantzukizuna geure gain hartu eta eredugarritasunez joko dezagun, erabileran urrats berriak egin ditzagun.*

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Larraulgo Udalak honakoa adierazi nahi du:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- *Udalbatzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.*
- *Ordezkeri politikoon egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta ahobizi eta belarriprest gehien aktibatzekeko urratsak egingo ditugu, arduradun politikoak zein langileak izan.*
- *Ahobiziotik euskara ulertzen duten guztiarekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.*
- *Belarriprestok gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.*
- *Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.*
- *Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrek gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.*
- *Udalak bat egiten du ekimena elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin Gipuzkoan, ahalik eta udal eta mankomunitate gehienetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Batzar Nagusietan, lurralde mailako politika bateratu bati begira.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, udal<>ekin, Euskara teknikarien Elkarlanean-ek, aurkezturiko erakunde adierazpena bere osotasunean onesten du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA